



UDALBILTZA

2020ko ekainaren xxxxxxxxx

UDALBILTZA PARTZUERGOAREN ETA IRURTZUNGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA:

Alde batetik JABI ASURMENDI SAINZ jauna UDALBILTZA Partzuergoaren izenean, hala baitagokio lehendakaria den heinean eta kontutan hartuta Partzuergoaren Estatutuen 30 eta 31 artikuluetan xedatutakoa.

Bestetik, AITOR LARRAZA CARRERA jauna, IRURTZUNgo Udaleko alkatea, udal horren ordezkari eta izenean.

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta honako azalpen hauek ematen dituzte.

AZALPENAK:

-I-

Udalbiltza Partzuergoa 2001. urtean sortu zen erakunde publikoa da. Nortasun juridiko propioa eta erabateko ahalmena du bere helburuak lortzeko.

Bere estatutuen arabera, Udalbiltza Partzuergoaren helburuen artean udalen arteko elkarlana bultzatzea eta haien arteko lurralde egituraketa zein garapen sozial, ekonomiko eta kulturala sustatzea daude. Xede hauek bete asmoz, garapenerako estrategiak finkatzea beharrezkoa da eta estrategia hauek gauzatzen laguntzeko baliabide gisa aurkezten du bere burua Udalbiltzak.

-II-

II.- Era berean IRURTZUNgo UDALA, bere eskumenak betez, arlo horretan hainbat sustapen politika ari da lantzen. Testuinguru horretan bere aurrekontuetan "-----" izeneko aurrekontu partida aurreikusi du.

-III-

Toki-erakundeek beren artean koordinatu behar dituzte beren eskumenak, eta Udalbiltza Partzuergoa – IFK Q2000578A –Doneztebe plaza, 1. 20180 Oiartzun (Gipuzkoa)
Udabiltza.eus



UDALBILTZA

bereziki herri-administrazioekin, bai tokiko jarduerak nahiz zerbitzuak toki erakunde bakoitzaren interesen ginetikoak direnean, bai herri-administrazioen interesak nabarmen ukitu edo baldintzatzan dituztenean, zein herri administrazio horien interesekin bat datozenean edo osagarriak direnean.

Ondorioz, esku-hartzaileek erabaki dute lankidetzan hitzarmen hau izenpetzea ondorengo klausuletan oinarrituta.

KLAUSULAK:

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da lankidetzan esparru bat ezartzea Udalbiltza Partzuergoaren eta IRURTZUNgo Udalaren artean eta Udalbiltza Partzuergoaren helburu estatutarioen baitako jarduerak bultzatzeko.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA

Lankidetzan hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 47 eta hurrengo artikuluetan arautzen denetakoa da.

Hitzarmen hau sinatzen duten bi entitate publikoek haien arteko harremanetan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 55. artikuluan xedatutakoa beteko dute.

HIRUGARRENA.-UDALAREN BETEBEHARRAK:

Proiektua finantzatzeko Udalak 1.000€ -ko ekarpena egingo du 2020ko aurrekontuan agertzen den ----- kontu sailaren kargura. Zenbateko hori hitzarmen hau sinatzerakoan ordainduko da.

Ekarpen honen bitartez Udalbiltza Partzuergoaren jardura orokorrak finantzatuko dira, betiere, estatutuetan zehaztutako helburuen baitan. Ekarpen honek ez du izaera finalistarik.

Ekarpen hau, abenduaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 lege orokorraren 2.2 artikuluan arautzen denetakoa da eta hortaz, lege horren aplikaziotik at dago.



UDALBILTZA

LAUGARRENA.- PARTZUERGOAREN BETEBEHARRAK:

Hitzarmena sinatu baino lehen, Udalbiltza Partzuergoak 2020 urtean aurrera eramango dituen programa eta jarduera ezberdinak jasotzen dituen txosten bat jarriko du Udalaren esku.

Diru ekarpena, aipaturiko xedera bideratuko du eta hori egiaztatzeko 2021eko ekainaren 30a baino lehen memoria bat bidaliko du Udalera garatutako ekimenen berri emanez.

Halaber, Partzuergoak udal kontu-hartzailatza zerbitzuarekin elkarlanerako prestasuna behar du izan gastuari buruzko frogagiriren bat edo informazio gehiago eskatzen bazaio.

Udalbiltza Partzuergoak, udalak hala eskatzen badio, egindako jardueren aurkezpen publikoa egingo du, udalerriko herritar guztiei irekita. Honen helburua, bertako herritarrek bere jardueraren berri izan eta tokiko garapen estrategia ezberdinen inguruan ezagutzak handitzea izango da.

BOSGARRENA.- BESTE DIRU-EKARPEN BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA:

Hitzarmen honek xedetzat duen diru-ekarpena bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

SEIGARRENA.- AMAITUTZAT EMATEA:

Hartutako konpromisoak alde batek ez baditu betetzen, beste aldeak ahalmena izango du hitzarmena zorrotz betetzea eskatzeko edo hitzarmena amaitutzat ematea eskatzeko eta, behar izanez gero, ekarpen ekonomikoa galdu edo zati batean edo oso-oso-oso itzultzea eskatzeko.



UDALBILTZA

ZAZPIGARRENA.- IRAUPENA:

Hitzarmen hau bi aldeek izenpetzen dutenean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du bere xedea bete edo amaitutzat eman arte, 2020ko abenduaren 31 baino lehen bukatu behar duelarik nolanahi ere.

Aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, eta horrela jasota gera dadin eta bidezko ondorioak sor ditzan, bi aldeek hitzarmena izenpetzen dute jatorrizko bi aleetan, goian aipatutako lekuan eta egunean.

Aitor Larraza
Irurtzungo Udala

Jabi Asurmendi
Udalbiltzako Partzuergoa